

HITZAURRE GISA

ARIZMENDIARRIETA'TAR JOXE MARIAREN OROIMENEZ

Igaro den 29 arratsaldean, eskutatik aldegin zigun gure Joxe Mariak. Bere bizitza guztia ez daukagu hitz, orri edo liburu batzutan azaltzerik.

Beste askoek bezala, guk ere bere laguntza zoragarriaren berotasuna nabaritu izan dugu. Aldizkari hau argitaratu zenetik ale guztiak aztertuz, aurrera jarraitzeko, arnasa ematen zigun : " Hori da ekintza eta ez hitz hutsa " ziozun.

Joxe Maria aldegin izan arron, berak emandako aredu eta jarraigura gorde gordiak daduzkagu. Horregatik oraingo ale hau bere oroimenez idatzia da.

E.K.T.